

INDUSTRIA-PRODUKZIOAREN INDIZEA. 2025EKO AZAROA


Euskal AEko industria-jarduera % 0,8 hazi da 2025eko azaroan

Aurreko hilaren —2025eko urria— aldean, industria-produkzioa % 1,0 murriztu da

Eustaten datuen arabera, 2025eko azaroan Euskal AEko industria-produkzioa aurreko urteko hil berean izandakoa baino % 0,8 handiagoa izan da, lan-egutegi homogeneoari dagokionez.

Aurreko hilabetearekin alderatuz gero, Euskal AEko industria-jarduera % 1,0 murriztu da azken hilabeteen, urtaroen eragina zuzendu ondoren.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, *Kontsumo-ondasunetan* produkzioak urte arteko portaera negatiboa izan du 2025eko azaroan, eta produkzioa % 1,5 murriztu da sektore osoa kontuan hartuta. Murrizketa hori, batez ere, *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* portaerak eragin du —horien produkzioa % 3,4 murriztu da—, eta hori, neurri batean, *Kontsumo iraunkorreko ondasunekin* konpentsatu da —horien produkzioa % 6,7 handitu da 2024ko azaroarekin alderatuta—. *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* artean, besteak beste, altzarien eta etxeko tresnen fabrikazioa sartzen da. *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* artean, bestalde, elikagaiak prozesatzeko eta kontserbatzeko jarduerak, garbiketa- eta higiene-produktuen fabrikazioa, farmazia-produktuak eta janzteko arropen produkzioa agertzen dira.

Ekipamenduko ondasunen produkzioa (ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialen eraikuntza eta aeronautikaren edo itsasontzien eraikuntza barne hartzen dira) % 3,7 handitu da aurreko urteko azaroaren aldean.

Bitarteko ondasunetan (metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa barne hartzen dira) produkzioa % 1,1 murriztu da urte artean.

Azkenik, *Energiaren* produkzioa % 2,2 handitu da 2025eko azaroan, aurreko urteko hil beraren aldean. Sektore honetan sartzen dira energia elektrikoaren produkzioa eta hornidura eta petrolioaren fintzea.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Azaroa 2025

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestacionalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
Indize orokorra			
Euskal AE	0,8	-0,5	-1,0
Araba/Álava	-7,9	-4,7	-2,1
Bizkaia	4,0	0,7	-0,5
Gipuzkoa	2,4	0,6	-0,9
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	-1,5	1,0	-1,5
Kontsumoondasun iraunkorrak	6,7	1,6	0,1
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	-3,4	0,8	-1,9
Ekipo-ondasunak	3,7	1,2	-1,5
Bitarteko ondasunak	-1,1	-1,7	-0,2
Energia	2,2	-3,1	-4,6

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtarrietik behatutako azken hileraren artean (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2026ko Urtarrilaren 8a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2025eko azaroan, Industria-produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera negatiboa izan da Araban (–% 7,9), batez ere ekipo-ondasunen (–% 15,5) eta bitarteko ondasunen (–% 4,1) jaitsieragatik. Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, produkzioak urte artean % 4,0 eta % 2,4 egin du gora, hurrenez hurren.

Maila bereiziagoan, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2025eko azaroan, urte artean, produkzioaren igoera handiena hauek izan dute: *Makineria eta ekipoa* (% 3,1), *Garraio-materiala* (% 2,7) eta *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 0,6). Beste muturrean, *Zura, papera eta arte grafikoak* sektoreak urte arteko % 4,2ko murrizketa izan du eta *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* sektoreak % 2,9koa.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Azaroa 2025

	m / m-12
Elikadura ind., edariak, tabakoa	-0.9
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-4.2
Kaubua eta plastikoak	0.1
Metalurgia eta produktu metalikoak	0.6
Materiala eta tresna elektrikoak	-0.3
Makineria eta tresneria	3.1
Garraio-materiala	2.7
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-2.9

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal Aeko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2026ko Urtarrilaren 8a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2025eko AZAROKO BALANTZE METATUA

Urteko lehen hamaika hilabeteetako balantze metatua, Industria-produkzioaren indizea % 0,5 jaitsi da. *Energia* sektorean produkzio metatua % 3,1 jaitsi da azarora arte, eta *Tarteko ondasunak* sektorean % 1,7. *Kontsumo-ondasunak* sektorean eta *Ekipamenduko ondasunak* sektorean, aldiz, produkzioa % 1,0 eta % 1,2 igo da, hurrenez hurren, aurreko urteko aldi metatu berarekin alderatuta.

Lurralde historikoen arabera, 2025eko lehenengo hamaika hilabeteetako balantze metatua balantze positiboarekin itxi da Bizkaian eta Gipuzkoan, produkzioa % 0,7 eta % 0,6 igo baita hurrenez hurren. Araban, aldiz, produkzioa % 4,7 jaitsi da, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % **79,70**eko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62